

Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria Orokorra larrialdi klimatikora egokitzeke lanak burutzen diardu

Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria Orokorra habitat hobekuntzak burutzen aritu da azken bi urteetan zehar. Dibertsitate biologikoaren galera irauli eta bertako ekosistemen funtzionaltasun ekologiko egokia bermatzeko helburuekin hainbat ekimen eta esku-hartze burutu dira. Lan hauei esker, euskarri eta erregulazio kategorietan biltzen diren ekosistema zerbitzuak indartzea lortu izan da alde batetik; eta EAE-ko mehatxatutako espezieen zerrendan dauden espezieen kontserbazio-egoera iraultzeko urratsak eman dira bestetik.

Lan hauek 2020-2021 urteetan zehar exekutatu dira, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak natura-ondarea eta bioaniztasunaren arlorako argitaratu zuen diru-laguntza lerroaz baliatuz, zeinak Eskualde Garapenerako Europako Funtzak kofinantziatzen duen.

Aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan, ekosistema naturalak lehengoratzek eta paisaiaren fragmentazioa murrizteak paper garrantzitsua jokatu dute lur planetaren batzbesteko tenperaturaren igoerak 1.5 gradu zentigradu gainditu ez dezan, eta klima aldaketaren efektu bortitzenak arintzeko estrategian. Helburu hauei eutsiz, geroz eta gehiago dira ingurumena hobetzeko ekimenak sustatzen ari diren udalerrriak.

Haritz kandugabea hedatzen

Aizkorrin kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan haritz kandugabeaz osaturiko harizti mixtoen %63-a. Harizti hauek oso bereziak dira EAE-n, nahiko arraroak baitira. Hori dela eta, zuhaitz espezie honen azalera emendatzeko ekimenak burutu dira, pagoarekin duen lehia murriztuz.

Horretaz gain, pagadi eta harizti mixtoen basoetako egitura hobetu da, ohianpearen birsorkuntzari bultzada bat emanez eta egur hilaren bolumenak zein karbono hustulekuak handituz. Lan hauen helburua negutegi efektua sortzen duten gasak biltegitratzeko gaitasuna handitzea eta Gipuzkoari dagokion erreinu biogeografikoan garatu daitezkeen basoetako komunitate biologiko gehienek bizi-zikloa osatu ahal izateko gutxieneko habitatak berreskuratzea izan da, basoa interes ekologikodun elementuekin hornituz.

Aurrerantzean, basoetako egitura hobetu ahala, kontserbazio egoera onean dauden basoetan bizi diren espezieak Partzuergoko mendiak erabiliko dituztela espero da, bai bizi-zikloa osatzeko edota lekuz aldatzeko ere. Horien artean aurkitzen dira bechstein saguzar mehatxatua edota okil ertaina, beste espezie batzuen artean.

Saguzarren babeslekuak mesedetzen

Saguzarrak Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan elementu gakoak dira. Izan ere, izurriteen kontrol biologiko eraginkorrak bezalako zerbitzuak eskaintzen dizkigute. Espezie guztiak aurkitzen dira katalogatuta Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Zerrendan. Bizidun hauek oso sentikorrak dira kumatze eta hibernazio garaian, eta babesleku egokien dependentzia handia dute bizi-zikloa osatzeko.

Basoetako saguzarrek zuhaitz zaharren dependentzia handia dute kumatze eta hibernazio koloniak sortzeko. Izan ere, Zuhaitz zaharren enborretan arrakala eta barrunbe ugari sortzen dira, saguzarrentzat garrantzitsuak izanik babesa hartzeko. Hori dela eta, Partzuergoko zuhaitz zaharren kopurua handitu bitartean babes-kutxak instalatu dira basoan, animalia hauen presentzia mesedetu eta saguzarren zerbitzu ekosistemikoak indartzeko.

Hezeguneak

Urari loturiko habitat kontinentalak bizi-forma ugariren bizilekuak dira. Horien artean bitxienetarikoak landare haragijaleak dira, eguzki ihintza esaterako (*Drosera rotundifolia*). Landare mota hauek Partzuergoko zohikaztegietan aurkitu daitezke. Ingurune berezi hauetara moldaturik dauden landare berezi hauen habitaten bideragarritasuna bermatzeko, giza-azpiegituren sorkuntzak alteraturiko uraren dinamikan zuzenketak burutu dira.

Horretaz gain, galtzeko arriskuan dagoen muturluze pirinearraren bizilekua hobetzeko haltzak, lizarrak eta urritzak landatu dira Aranarri errekaaren ibaiertzean, eta itxitura perimetral batekin mantenduko dira datozen 5 urteetan zehar, ibar-basoa egituratzeko lehen pausoak eman arte. Lurreko korridore ekologikoa indartzea ekarriko du neurri honek.

Gizarteratzea

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorrek bere administrazioaren barnean kudeatzen dituen mendietako ondare naturalaren garrantzia azpimarratu eta gizarteratu nahi izan du. Horrela, Otzaurte edota Beundera hurbiltzen diren bisitariek bertako biodibertsitateari buruzko bi panel informatibo aurkituko dituzte, aurrerantzean eremu natural honen interpretazioa erraztuko dutenak.

Errekurtso grafiko hauetaz gain, saguzarren ingurumen garrantzia dibulгатuko duen erakusketa birtual bat sortu da. Saguzarrek gizartean hartu duten fama txarra irauli nahi izan da ekimen honen bidez, ugaztun hegalaria hauekin elkarbizitza errazteko asmoz. Erakusketa birtual hau Segurako Udalaren web orrian aurkitu ahal izango da aurrerantzean.